

## Gai monografikoa. Jardun biko eredua

102. zenb.  
XLI. URTEA  
2023 UZTAILA-ABENDUA

ISSN 2530-3287

**Iñaki  
Murua  
Anzola**

HABE  
i-murua@habe.eus

## Jardun bikoak:

## bi euskaltegiren esperientzia

2023ko uztailean jardun biko ereduari buruz egindako ikastaroan antolatu zen mahai-inguruan partaide izan ziren euskaltegietako bi ordezkariaren ekarpena jasoko dugu artikulu honetan, Garraldako AEK-ko Ana Colomo Canterok eta Barakaldoko Udal Euskaltegiko Fidel Vegasek adierazitakoaren laburpena, hain zuzen ere.

### Gako-hitzak

esperientziak, euskaltegiak, helduen euskalduntzea, jardun bikoak

### SARRERA

HABEren esparruan, eta oro har helduen euskalduntzearen munduan, ez da eredu berria jardun bikoak. Besteak beste, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean be-reizten diren hiru ikastereduetako bat da. Hala, 2023ko uztailean egindako “Jardun biko irakaskuntzarako gakoak: oinarrizko erremintak eta estrategiak” udako ikastaroan mahai-inguru bat antolatu zen euskaltegien esperientzien berri izateko. Hemen dugu Garraldako AEK-ko Ana Colomo Canterok eta Barakaldoko Udal Euskaltegiko Fidel Vegas Fernándezek esandakoaren laburpena.



### ANA COLOMO CANTERO (GARRALDAKO AEK)

Pirinioetako AEKn (Agoitzen, Garraldan...) zazpigarren urtea da jardun bikoan. Eskualdearen tamainan datza arrazoia. Izan ere, ehun eta hamabi herri dira guztira Pirinioan eta aurre Pirinioan, eta hamaika mila pertsona besterik ez dira bizi. Beraz, ikasleak ez ziren alferrak, baina ia ezinezkoa zen, modulazioa baxua izan arren, euskaltegiko ikasgelara astean bitan joatea. Egia esan, autoa behar da gehienetan toki batetik bestera joateko.

Bestalde, badago beste arazo bat: ikasleen mailari erreparatuta, taldeak heterogeneoak izan ohi dira. Esate baterako, talde berean A1, A2, B1 eta B2 mailako ikasleak egon litezke. Horregatik, irtenbidea emateko modua izan zitekeen eredua.

Duela zazpi urte, talde pilotu bat sortu zen Andoni Tolosaren proposamenaren ondoren. Sekulako aurkikuntza izan zen; ikasleen asebetetzeari erreparatzea ezinbestekoa da horren berri zehatza izateko.

2022/2023 ikasturtean hamalau talde izan ditugu guztira gure ikasguetan eta horietatik bost jardun bikoak, eta maila guztietakoak: hasierako mailatik C2ra. Talde horien ratioa, gainera, ikasguko altuena izan da: C2an hamar, B2-C1ean hamalau eta hasierakoan hamahiru.

Antolaketarako erabiltzen dugun ereduak hauxe da: ehun ordu aurrez aurre, beste horrenbeste online. Horiez gain, ordu erdiko hamar tutoretza. Moodle da erabiltzen dugun plataforma; bertan, baliabideak eta zereginak jartzen ditugu. Gela birtuala elkarrekin lan egiteko ere erabiltzen dute. Aurrez aurrekoetan astean behin egiten dugu hiru orduko saioa eta gero tutoretzetan feedbacka, pertsonalizazioa, dena aztertu.

Tutoretzak bakarka egiten dira, online edo aurrez aurre; gehienek azken hauek dituzte nahiago. Hasiera batean, bi urtez egon ginen hamar ordu ikasle bakoitzarekin, hau da, hilero ordu bat gehi diagnosis egiteko beste bat. Gerora, aldatu egin zen ereduak; hala, orain ordu beteko bost dauzkagu bakoitzarekin. Laburra al da ordu-erdiko tutoretza? Ikasleek nahiago dituzte ordu-erdikoak, hilero izateko elkartzeko aukera. Bat egiten dut horrekin; onena da. Eta lehenengo bost minutuetan galdetu behar zaio ea zer moduz dagoen eta orduan etor daiteke erantzuna. Feedbacka ere beste modu batez egiten dugu; tutoretzan ez ezik, plataformako lanetan ere bai. Horretan ere pertsonalizatzen da eta beraiek jasotzen dituzte hobetzeko jarraibideak.

Oso ongi azaltzen zaie hasieran ikasleei zer egin behar duten, nola lortuko duten arrakasta eredu horretan eta beraiek badakite non dauden. Tutoretzetan ikasleek adierazten dutenaren arabera, helburuak ezagutzen dituzte, prozesuaren jabe bihurtzen dira, badakite nora doazen, zer egin behar duten, zein diren beren gabeziak eta horiei nola aurre egin. Trebetasunen oreka lortzen da. "Biribila" dela esaten dute, gurpilean ari direla edo adierazteko: bukatu, hurrengo hasi... Gainera, ehuneko handiak lortzen du zertifikatzea. Ikasle hauek langileenak dira, ez da alferren ereduak.

Zazpi irakasle aritu gara ikasturte honetan eta horietatik sei jada jardun biko ereduaren arituak. Jaso dugu arlo digitalean prestakuntza; beno, han bizitzeko ezinbestekoa da. Zazpigarrena bidean dago. AEK barruan ere jaso dugu online tutore izateko formazioa, Moodle arloan ere nire kasuan eta gero trasbasea egin genuen, beti egin ohi dugun legez; batek ezin badu formazioa jaso, joaten denak jasotako prestakuntzaren berri ematen du.

Irakasleentzat, lana da bai; asebetetzea ere bai. Orduei dagokionez, lehenengo urtean esleitutako ordu teorikoek eta sartutakoek bat egiten zuten. Orain, berriz, gutxiago dira esleitutakoak eta ez da lortzen ordu errealekin bat etortzea.

*Sblendid* proiektuan aipatzen diren lau zutabeak bereizita izan beharrean elkarri lotuta marraztuko nituzke, elkar elikatzen dutelako. Eta gainera ikasleek horrela ikusten dute.

Ebaluazioa da inportanteena: etengabeko ebaluazioa, koebaluazioa, sumatiboa, formatiboa... Era guztietakoak egiten dira. Eta horretatik ateratzen da informazioa, hobetzeko. Horri esker, aldaketak egin ditugu zazpi urte hauetan. Hasiera batean plataformako zereginak pixkat "pikoteo" ziren, gai desberdinak; orain, berriz, gai bat hartu dugu eta bloke bakoitzean garatu.

Ebaluazioari dagokionez, beldurra kendu behar diogu. Gure eskualdean, behintzat, asebetetze-inkestak egiten genituenean duela zortzi urte, beti oso puntuazio altua lortzen genuen, baina baxuena ebaluazioaren esparruan agertzen zen. Kezkatuta ginen horrekin eta aztertzen hasi ginen. Eredu honekin ondo ulertu dugu zer den ebaluazioa; ebaluazioa da informazioa jasotzeko, hobetzeko, ikasleari laguntzeko, ikasleak ez larritzeko... Zenbat

ebaluazio-mota dagoen ikusi dugu, guztiak egiten ditugu. Gainera, oso ongi ateratzen dira, ikasleak ohituta daude autoebaluaziora, koebaluaziora... ia esperoan daude. Beti dinamika ezberdinak erabiltzen saiatzen gara. Esate baterako, aurtengarbigailuaren teknika erabili dugu; "garbigailua, altxorra eta paperontzia". Ze gauza onak, politikak ateratzen diren. Azken finean, hobetzeko bidea.

Idazlanen zuzenketaz, bide desberdinak daude. Nire kasuan, batzuk eskolan zuzentzen ditut eta beste batzuk zuzendu ondoren, tira, begiratu, azpimarratu, etab. eta gero bidaltzen dizkiet. Tutoretzarako ekarri behar dute, beno ekarri, igo nik ikus dezadan, eta gero hasten gara elkarriketa-prozesu horretan ("zergatik jarri duzu hau?", "hemen ez zara konturatu", "hau azpimarratuta zegoen" ...). Horrela lantzen ditugu idazlanak. Nik aurtengarbigailuaren C2 mailako hamar ikasle izan ditut, hamalau C1 eta B2koak. Sekulako lana.

Ikasleek autonomia lortzen dute, baina horretarako egia da bidelagun onak izan edo izaten jakin behar dugula eta ez da erraza, batzuetan ahaztu egiten baitzaigu zer den bidelagun izatea eta zer den irakasle eta bidelagun, batzuetan bai eta beste batzuetan ez. C2an askotan esaten diegu "gu zuen bidelagunak gara; zuek pilo bat dakizue eta gu...". Bada, bidelagunak izan behar maila guztietan; ikasi behar dugu bidelagunak izaten. Horrela autonomia lortuko dute. Batzuetan, zalantza nuen autonomoegiak izango ote ziren. Baina horretan ez dago gehiegizko mailarik.

Moodle erabiltzen dugu, lehenago esan dudana legez. Prestakuntza jaso genuen nola funtzionatzen duen ikusteko; nik, adibidez, badakit programatzen Moodlen. Eta konturatu nintzen hasieran, nirea agian kontrakoa izan zen, ba asko nekien, hemen atal hau jarri, hemen beste hau... Baina ikasleentzat ez zen egokiena. Orduan, kontrakoa egin nuen, desikasi. Eta erran nuen, "ez, xumea egin behar dut, erraza", eta saiatu naiz; nik uste dut orain lortu dudala. Programatzeko erraztasuna aipa daiteke, dena dago lotuta, plataforman egiten dena eta aurrez aurrekoa. Erraz identifikatzen dira akatsak eta erraz konpon daitezke. Lortzen da sistematizazioa eta gero ikasleek eskatzen dutena ere bada klik gutxi egin behar izatea. Gainera, irakasle guztiok erabiltzen dugu berdin-berdina, eta lortu dugu: atal batean hauek dira baliabideak, ikusten baldin badugu aurrez aurrekoan "hau behar dut" igotzen dugu eta esaten diegu jakin dezaten, gero zereginak; hasiera batean jartzen nuen "hau, datorren asterako da" eta ez, beraiek eskatu zuten hileroko jartzeko zer egin behar duten eta moldatuko zirela, eta guk autonomia hori lortu genuen.

Esaterako, badugu jubilatuen talde bat eta Moodlen ari dira. Aurtengarbigailuaren C2ko ikasle batek esan zidan Moodle gorrotatzen duela, baina azkenean moldatu behar. Oso bisuala izatea komeni da. Eta agiriari begira, heterogeneoak direnez, atal ezberdinak jartzen ditugu, (B2, C1, C2) eta nahiz eta talde berean izan, talde bat baitira aurrez aurrekoan, Moodlen bakoitzak bere maila egiten du eta badauka hor oso ongi jarrita. Oso erabilgarria da; demagun C1ean dagoela baina B2ko zerbait erreparatu nahi duela; bada, B2kora sartzeko baimena ematen diot. Eta gero beste zati bat, baina hau progresiboa da, azterketak sumatzen direnean, urtarrilean, jartzen ditugu entzumena, etab. beraiek azterketa lantzeko. Saiatzen naiz erakargarria egiten, koloreak zaintzen... eskertu egiten dutelako. Ikastaroan aipatu den Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialeko esperientziarekin bat dator, azken finean.

Gaur egun, material pilo bat dago; eredu honetarako egokitzen jakin behar dugu, hau digitalizatzeko, eta hau aurrez aurrekoan, eta badago, kitto. Hori ez badakigu irakasleok... Bukatu aurretik azpimarratzeko beste kontu bat: Ezinbestekoa da ikasleen hitza entzutea. Harrigarria izaten da.

Egin duguna eta nahi duguna da, erronka gisa, talde guztiak jardun biko ereduak izatea. Ametsa izango litzateke guretzat.



## FIDEL VEGAS FERNÁNDEZ (BARAKALDOKO UDAL EUSKALTEGIA)

Nik 2014an entzun nuenean “jardun bikoia”, JB, whisky-marka bat zela pentsatu nuen. Txantxak alde batera utzita, 2014an hasi ginen Barakaldoko Udal Euskaltegian jardun bikoarekin. Euskaltegiko irakasle batek, Jose Mari Lasa zenak, proposatu zuen marko teoriko bat jardun bikoaren inguruan. Helburua zen autoikaskuntza-sistemak dituen alderdi sendoak eta aurrez aurreko edo ohiko ereduak dituenak biltzea eta ikasteredu berri bat sortzea, sistema misto bat. Geroago Idoia Ortigari eta niri eskaini ziguten proiektu hori abian jartzeko aukera eta 2015ean hasi ginen lehenengo esperientzia pilotuarekin. B2ko bi talde izan genituen horretan eta hogeitaz hamar ikasle inguru. Esperientzia arrakastatsua izan zenez, euskaltegiak erabaki zuen apustu irmo bat egitea sistema horren alde.

Une honetan, hamabost talde ditugu euskaltegian eredu horretan eta ehun eta hirurogei ikasle baino gehiago. Beraz, dagoeneko finkatu den eredu dela esan dezakegu. Hamabost talde izanik, zazpi-zortzi irakasle aritu gara hogeitamapikutik. Kontuan izan behar duzue Barakaldoko Udal Euskaltegia dela munduko udal-euskaltegirik handiena.

Ikasleei jardun bikoia zer den azaltzeko PowerPointeko aurkezpen bat daukagu. Lehenengo ideia: jardun bikoia ez da Lourdes, ez da miraririk egiten; ikasteko beste modu bat da, aurrez aurreko ohiko sistemarekin batera. Eta gero sinetsi behar da. Zer esan nahi dugu honekin? Ez dela gaur sortutako sistema bat, hamar urteko ibilbidea egin dugula. Sistema hau hautatzean ikasleek jakin behar dute non sartzen diren. Sistema guztiak onak dira, baina gero bakoitzak aurkitu behar du berea. Euskaltegiaren irudia buruz behera jartzen dugu aurkezpenean eta hori dela gakoa esaten diegu, buelta ematea. Jardun biko hitzak adierazi nahi du bi lekutan jardungo dugula, baina atzean zerbait egon behar da, beste filosofia bat; kontua ez da egiten duguna bi zatitan banatzea eta zati bat eskolan eta bestea etxerako, euskaltegitik kanpo gauza batzuk eta euskaltegian beste batzuk. Hori baino askoz gehiago da.

Momentu hartan, pentsatu genuen modurik onena *flipped classroom* erabiltzea zela; seguraski ezagutzen duzue (“gela iraulia”, “alderantzizko gela...”). Hauxe da hitz gutxitan esanda: ikasleek euskaltegitik kanpo beren kabuz egin ahal dituzten gauzak egingo dituzte, irakaslerik gabe, ikaskiderik gabe... Eta gero, gauza horiek ikasita, euskaltegira etorriko dira eta praktikan jarriko dituzte. Gutxi gorabehera, hori da. Nik ikasleei ondo ulertzeko jartzen diet eredu bat edo adibide bat: imajinatu kimikako klasea dela eta etxean edo zentrotik kanpo ikasiko dituzue formulak, elementuak, elementuen ezaugarriak... eta gero euskaltegira etorriko zarete eta euskaltegian laborategia izango dugu. Horixe izan behar da, gure ustez, jardun bikoaren helburua; euskaltegira etortzea eta komunikazio-laborategi bat egitea.

Gauzak horrela, hiru zutabe ditu gure jardun bikoak:

- Ikaskuntza sinkronoa, aurrez aurreko eskola. Guk ematen ditugu astean bitan bi orduko saioak eta hamabostean behin ostiral batean ere bai.
- Hamabostean behin, ordu-erdiko tutoretzak egiten ditugu; ikasturtean zehar, guztira, hamasei tutoretza.

- Eta, azkenik, ikaskuntza asinkronoa edo bakarkako lana, plataforman egingo duten lana (guk Moodle erabiltzen dugu une honetan, lehenago Google Drive baliatu genuen).

Eskolak ekintza komunikatiboetan oinarritzen ditugu; gutxi gorabehera, astean bat egiten dugu. Saiatzen gara komunikazio hori erreala izan dadin, gero kalera ateratzen direnean egin ahal izateko, kalean aurkitu ahal dituzten egoerei erantzuteko. Trebetasun guztiak lantzen ditugu (idazmena, mintzamina, irakurmena, entzumena) baina lehentasuna mintzamenak izan ohi du, elkarren arteko eragina lantzeko delako, taldea da ardatza, eta era atseginez saiatzen gara egiten. Zaila da hori egitea baina sartu ahal da motibazioa, asistentzia ona... Guk asistentzia ona daukagu. Eta, noski, euskara-mailak egiaztatzeak ere badu bere lekua aurrez aurreko klaseetan. Azterketei edo tituluei bizkarra eman gabe. Badakigu zergatik datozen hainbat ikasle eta haiei ere eman behar diegu behar duena, ezta?

Gero, tutoretza da pertsonalizazio-gunea, terapia-lekua nolabait esateko. Agian ez da hitzik egokiena baina oso inportanteak dira lehenengo bost minutuak tutoretza guztietan. Geure ikasleak oso ondo ezagutzeko aukera daukagu, eta gero, ikasprozesuan izango dituzten gorabeherak ulertzeko eta gauzak zergatik gertatzen diren jakiteko; ikaslea ez da pertsona anonimo bat, gure ikaslea da eta ondo ezagutu behar dugu. Arreta, ikaslearena da, jakina; gure lana, aholkularitza-lana da, nagusiki. Hasi gara ikasten ikasteko sistema bultzatzen, ez da hain erraza, eta, lehenago esan bezala, ebaluazio-gunea. Ez dugu ahaztu behar etxean egiten den lana; euskaltegitik kanpo egiten dena da. Horretarako guk Moodle plataforma erabiltzen dugu, eta hor sartuta ditugu gramatikadosiak, bideoak, guk grabatutako bideoak azalpenekin, ariketak, apunteak, entzumenprobak, idazlan luzeak egiteko jarraibideak... haiek bere kasa funtzionatzeko. Hemen, autonomiari buruz hitz egin daiteke. Laburbilduz; sistema oso bat eraiki behar da eta batez ere ondo lotu behar dira bi munduak.

Bi tutoretza-mota ditugu: bakarkako tutoretza (tutorea eta ikaslea) eta tutoretza partekatua (bi ikasle eta irakasle bat). Gehienak bakarkakoak dira, baina bestelakoak ere egiten ditugu. Tutoretzak oso garrantzitsuak dira. Sistema honek gauza on asko ditu baina, nire ustez, tutoretza da inportanteena, zutaberik handiena. Hogeita hamar minutu bi astean behin... agian hobe litzateke astean hogeita hamar minutu, ez da asko, baina HABEren moduluetan sartu behar da. Ikastaroak, guztira, hirurehun eta hogeita hamar ordu ingurukoak dira; etxean egindakoa kontuan hartzen da. Azkenean, ehun eta piku ordu dira aurrez aurrekoak, tutoretzan zortzi ordu eta gainontzekoa plataforman egin behar duten lana.

Tutoretza partekatuetan, koebaluzioa ere egin daiteke. Hortik asko ikasten dute.

Erabat islatzen dira udako ikastaro honetan aipatu diren zutabeak. Lehenago ere hitz egin dut horretaz. Bi munduen arteko lotura *flipped classroom*aren bitartez egiten da. Ikasleari laguntzeari buruz onartu behar da autoikaskuntzarekin eta jardun bikoarekin irakaslearen rola erabat desberdina dela, ez da klase magistralik ematen; gure lana da aholkatzea, ikasprozesuan zehar laguntzea. Autonomia ezinbestekoa da, ikasleek hainbat gauza beren kabuz egiten dituzte; hau da, autonomia bai ala bai agertu behar da. Egia da beharbada oraindik ikasleak, gure sistemagatik edo hezkuntza-sistemagatik, ez daudela ohituta gauza horiek egitera, baina poliki-poliki gero eta ikasle autonomoagoak ditugu.

Zuzendariari ez zaio gustatzen horrela adieraztea, baina gu oso "kasero" hasi ginen: Google Drive erabiltzen genuen eta gauza sinpleak egiten genituen. Hasten garenean helburuak xumeak izatea garrantzitsua dela uste dut. Gerora denbora izango da zer hobetu behar den ikusteko; guk urtero hobetzen ditugu gauzak, etengabe hobetu behar da. Guk daukagun Moodle plataforman asteka ditugu unitateak, teoriar klasean erabiltzeko dira; hor dagoen hutsune bat da ez daudela erabat lotuta. Baina ideia hori izan behar da: ikasgela birtualean egingo duguna gero klasean egingo dugula. Hasieran, ba, nola ikasten da

oinez ibiltzen? Egia ere bada Moodle ez dela erakargarria; hori da duen arazorik handienetako bat.

Oso garrantzitsua da ikasleei entzutea: zer behar duten... Agian guretzat oso ondo planifikatuta dago, oso ondo antolatuta dago... baina haientzat ez da erabilgarria. Baditugu bideoak grabatuta azalpen gramatikalekin eta hori bageneukan buruan, baina ikasle batek eskatuta jarri genuen martxan. Imajinatu behar dugu egoera: haiek etxean daude, bueno, etxean edo dena delakoan, hondartzan ere ikasi ahal da, eta, zer behar dut? nola? Eta, batez ere, argi izatea. Hori, alde batetik, problema bat da. Azkenean, dena estandarizatzen badugu, dena berdin-berdina bada, astero-astero, aspergarria izan daiteke. Baina nik uste hobe dela hasieratik argi uztea zer den, nola egiten den, arazorik ez izateko. Erresistentziak izatea ez da harritzekoa; jendeari kosta egiten zaio; jardun bikoia, tutoretza, sinkronoa eta asinkronoa... txinera bezalakoa haientzat. Beraz, azaldu behar zaie, lasaitu eta esan “hemendik bi astera nik baino hobeto kontrolatuko duzu plataforma eta egon zaitez lasai”. Baina oso inportantea da erraza, sinplea izatea; egitekoa ere erraza izatea komeni da. Hori da lortu behar duguna; ondo aurkeztu, bisualki modu erakargarrian, oso intuitiboa izan dadila eta erraza.

Plataformari duen garrantzia aitortu behar zaio, baina beste bi zutabeek, aurrez aurrekoak eta tutoretzak alegia, lehentasuna dute nire ustez. Beste bietan dago sistemaren arrakasta.

Plataforman egiten dituzten ariketak, ikasleek beraiek zuzentzen dituzte. Normalean hau da gure egitura: bideo bat dute azalpenarekin, eta agian hori da nire ustez dugun akatsik handiena, oso gramatizatuta dagoela. Adibidez, “nor-nori” agertzen da eta bideo bat daukagu “nor-nori” zer den azaltzen, klasean izango bagina bezala. Aldi berean, beste abantaila bat da, nonahi, noiznahi eta nahi beste aldiz ikusi ahal baitute. Horren ostean, apunte idatziak eskaintzen dizkiegu eta ariketak; zuzenketarekin batera datoz ariketak. Modu apalean dugu egina; hobeto egin ahal da, jakina, eta erantzunak programan sartu eta programak berak erantzutea. Idazlana bada, klasea ekartzen dute edo e-mailez bidaltzen digute. Posible da klasean bertan komentatzea, nahiz eta hori normalean ez dugun egiten; tutoretzan, ordea, bai. Guk fokua ez dugu soilik jartzen gaizki egindakoetan; fokua zabaldu behar dugula uste dut eta ondo egin dutena ere azpimarratu behar dugu. Aurten jardun bikoaz egindako prestakuntza-ikastaro batean ikasi dut tutoretza asinkronoa ere egin ahal dela, eta idazlanak komentatzeko oso ona da. Egin dugu saio bat eta ondo atera da. Dugun arazo bat da talde hauek kudeatzea, adibidez nik hiru talde izan ditut aurten, klasetik kanpoko lan handia eskatzen du; ez da erraza. Sistematizatu nahi dugu hilean behin edo idazmenaren halako ebaluazio asinkronoa, feedbacka ematea alegia.

Prestakuntza oso garrantzitsua da; adibidez, “jardun bikoia helduen euskalduntzea” proposamena bezalakoa ekimenak. Abentura batean sartzea ez da mundu guztiarentzat erakargarria eta beldurra agertzen dira. Baina printzipioz guztiak gara gai gauzak egiteko. Inplikazioa behar da, sinistea eta, jakina, prestakuntza. Baliabideak behar dira, baina hasieran behintzat ez dira funtsezkoak. Egia ere bada erresistentzia dagoela eta ohikotik ateratzea batzuetan zaila dela, nik klasea betiko moduan ematen dut, eroso nago, nire lana egiten dut... baina bide berriei ekin behar zaie. Irakasleentzat lana handiagoa da, baina gerora, denborarekin, diferente ikusten da. Mundu berri batean sartzeko beldurra hasieran, baina sistematizatzen denean, badakizu zer egin behar den